

Kaixo, lagunok:

JOSE LUIS de la MATAren heriotzaren/bizitzaren **XIII. URTEURRENA** beteko da otsail honetan. Horren ondare emankorra, horren lan eskerbaren fruituak lagun ditugu gure eguneroko bizitzan: eraiki zuen eskolakoak gara eta berau babeslekuatzat dugu; sistematizatu zuen ekoizpen teoriko-praktiko aberatsak modelo iraultzailea gauzatu zuen gure osasun-lanbiderako; eguneroko bizitzan eta politikan, harremanak eraiki eta zaintzeko zuen modua erreferentzia etikotzat dugu. Jose Luisek eta, jakina, Teresa Gilek gure prozesuak sostengatzen eta elikatzen jarraitzen dute, Historiatik gure historia pertsonal eta kolektibora.


Hori dela eta, Jose Luisi gure omenaldia eskaini nahi diogu eta gure eskolarentzat, **IZARGAIN**entzat, hain esanguratsua den data hori gurekin gogoratzeko, Aresoko **ERASONEA-DE LA MATAENEA**n egingo dugun ekitaldian parte hartzera ere gonbidatu nahi zaituztegu: **otsailaren 23an, larunbatean, goizeko 11etan**.

2017-18ko ikasturte honetan zehar, www.joseluisdelamata.com web-orria aberasten ari da Jose Luisen testuak aztertzeko Donostiako **Izargain-DelaMataren Eskolan** astero garatzen ari garen **www 11. Mintegiarekin**.

Mintegiaren testuinguruan, Jose Luisek, aurten berriro ere, antzerkiaz gozatzera eramango gaitu. Guztion artean, **ARGALA**ren Historia/historia antzeztuko dugu: hiru hamarkada, bere bizitzan eta heriotzan, nazional zein klase-eskubideen aldeko Printzipio sendoak eraikiz. Gure etorkizunaren erroa den Memoriaren aitortzea, gaur eta betiko.

Ekitaldia bukatu eta gero, mokadu bat hartuko dugu etxean eta, ondoren, **bazkaria** egingo dugu. Eguna dantzan bukatuko dugu **Txapelamelaren** musikarekin eta, agian, beste sorpresa gogorrago batekin... (Bazkarian geratuko zaretenok mezua bidali ulumago@hotmail.com helbidera, **otsailaren 22a baino lehen, mesedez**).

Areson zuen zain gaituzue. Agurra moduan gure besarkada har ezazue.



Pensamiento en acción

Mertxe Aizpurua

DE LA MATAENEA
Izargain-Areso
2019ko otsaila